



**ANGOSTO'KO SANTUTEGIAN**

# Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Couñe eu nostror*

*Zeure urteak gurean*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

# GABONAK

## URTERO LEZ

Zenbaki biribilla izan dauan 1980'garren urtea be azkenera doaku, baiña amaitu baiño len gabon-jaiak ospatu bear ditugu gozatsu ta baketsu, inguruko giro larriak orretarako eguntxu batzuk izten ba'dauskuz.

\* \* \*

## ATESEDEN ALDITXUA

Geienez oporrak eta atsedena udako kontuak izaten dira, baiña gabon-inguruan be izaten dira olako opor-egunak eta atsedena-alditxua.

Alde batetik, jaiak ugariago eta bestetik lanaren ekiñaldietan egiten diran konponketak aitzu barik, egun orreitarako ateraten doguz jolas bereziak egiteko asti-egunak.

\* \* \*

## SU-KONTUA

Baserrietako egon-gelea, sutondoa izaten zan eta Olentzero'k gabon-inguruan ba-dauka sutondoagaz zer-ikusia. Euskaldunak ez diran errietan be bai: Indoeuropear guztien giroko oiturak ei dira, egunik eta gaurik luzeenaren inguruan egiten diran jaiak.

Dana dala, sutondoagaz eta mukurragaz ba-dauke zer-ikusi gabonak. Olako lekuan aurten be ipuin zar bat baiño geiago edestuko dabe gure aitita zarrak.

\* \* \*

## DIRU-ZALEAK

Aldakuntza aundia baiña kanpotik etorri jakuna!

Ez ete dira sarriago ikusiko gure umetxuak eta ain ume ez diranak, ikus-irradiaren aurrean, zer erosi eta zer jan bear daben erdera garbiz agintzen dautsen tramankulu orren aurrean?

Gure onaren ardura aundi barik, gaiñera, diru-zaleak euren salgaiak saltzeko eta gure erosi-bear biziak sortzeko asmau daben bide gogaikarri bat besterik ez dala.

Ori batez be Erregeen egun-inguruan. Orduan urak guztiak bideetatik urten eta uriolak inguruetara zabaltzen dira: Erosi... erosi...

\* \* \*

## SENDI-EGUNAK

Gure artean sendiak, baserrietan, arrantzaleen artean, lengilleen artean be bai, izan dau bere alkartasun egokia. Errietako jaiak eta gabonak izaten dira, batez be, alkartasun orrerik indarra ta bizitasuna emoteko egunak, jazokizunen jaiak alde batera dirala: Ezkontzak, bateoak, jaunartzeak...

Izan beite bakea ugari gure sendietan, batez be gabon-inguruetan.

\* \* \*

## FEDE-EGUNAK

Sutondoko bizitzeagaz batera eleizako bizitzeak be giro berezia izaten dau egun orreitan.

Ez da erreza jakitunentzat Jesus noz, non eta zelan jaio zan jakitea, baiña Berak ekarri euskun mundu barria sortzeko bidea adierazteko zertzelada egokiak ezarri ditu Barri Onaren idazleak: nekeak, txirotasuna, erbestean, bakar-tadean, gaberdian, artzaiñak lagun dirala. Eta apaltasun aundi ori, berbizkunde-egun baten antzera goratzeko, aingeruen abestiak.

\* \* \*

## ZORIONA

Jai oneitarako, ZER onen irakurle guztiai zorionik beroena opa dautsegu. Ondo igaro gabon-jaiak, ondo amaitu urte zarra eta obeto asi barria.

# REKALDE, ITSASLARIA

*Itxura on eta biotz obeko gizon au Bilbo'n jaio zan amaseigarren gizaldian; eta aro aretako itsasgizonik andienetarikoa izan zan.*

*Gudaritzari lotua izan zan gaztetandik. Eta Flandes'ko gerratean gogor jokaturik, arin eldu zan kapitan mailaraiño. Andik etorri, ta Idiaketz, Felipe II'aren idazkari ospetsuaren loiba bategaz ezkondu zan Begoña'ko Andra Mari'ren eliza nagusian.*

## ITSASOAN

*Andik laster itsasoko zeregin andietara sartu zan. Ameriketatik ona etozan itsas-ontzien gidari ta gordari.*

*Madeira'ko ugarteetan ontzi bi galdu ziran bein; eta berak jaso ebazan areen urre ta gaiñerako sorta baliotsu guztiak. Irlanda'ko gerrate bitartean, ango lurraldean sarrerazo eban, beste bein, emengo gudaritalde polita, ango katolikuai lagun etortzearren.*

*Beste bein, Erregeren ontziak borroka gogorrean egozan prantziarren aurka. Españiarrak galdu, ta ertzera igeska etozenean, an agertu jal en gure Rekalde andia bere ontziakaz. Agertu ta borrokari lotu, jo ta ke; ta arerioen ontzi batzuk urpera bota, ta beste batzuk artuz, sekulako garaitza lortu eban.*

## ONTZIGILLE

*Idazki luze bat egin eutson Rekalde'k erregeri, Ameriketatik onako bide luze ori itsaslapurrez garbituta gero. Eta sekulako oarrak ipinten eutsozan itsasontziei buruz ta euron gorabera guztietaz: ontziak zelan egin, euren mutil eta nagusiak zelangoak, zelan ekin itsasoan eta abar.*

*Erregek gogoz artu oarrok, eta Kantauri itsasoko ontzigille egin eban gure Rekalde trebea. Gatz barria artu eban bertoko ontzitegiak. Eta len baiño ontzi eder eta andiagoak urten ziran andik laster.*

*Liburu barri bat egin eban, orretarako. Ona, aren idazpurua: «Relación de las medidas que han de tener los mastiles y vergas para los galeones de su armada».*

## ONTZIDI NAGUSIA

*Kantauri itsasoko ontzi guztien buru egin eban, urren, erregek. Eta Rekalde'k, esku bete lanez, laster jantzi ebazan bere ontzi barriak unamaz, katez, ainguraz eta kaño bikaiñez. Ingalaterra'ri erasoteko ontzidi andi bat gertuten ziarduan erregeak. Ontzidi nagusi orreri «Escuadra invencible» izena ipiñi eutsoen: Orduara arte egin izan zan ontzidirik andiena zan.*

*Medina Sidonia'ko dukea egin eban bere ordeko erregek; eta gure Rekalde itsaslaria aren almirante.*

## BORROKA

*1588'ko Utzaillaren 31'an asi zan borroka. Howar ta Drake ziran ingelesen buru; eta españiarren atzeko ontzizai asi ziran erasoka zist eta zast, listorrak bailiran. An egoan, egon be, gure Rekalde; ta laster inguratu eben arerioen sei ontzi andik. Laster asi ziran aren ontziaren aize-ojalak urratzen, dunba ta dunba; ontzi-tantaiak apurtzen, urren; ta ontzi-azala zulatzen, gero.*

*Orduetara luzatzen joian eraso gogorra. Zazpi mutil ilda ta beste berrogei eukazan elbarrituta gure gudalburuak; eta ez amor emon gura alan be. Gero guretariko ontziak noizbait lagun etorri, ta alde egin eben arerioak.*

*Calais'ko itsas-kolkoan sartu ziran orduan gureak. Eta ona, arerioen sei ontzi andi, danak sutan, kolko onetara abian. Medina Sidonia orrek orduan, bildurrarren, unamak askatu, aingurak jaso, ta etsaiaren aurka abiatzeko agindu. Eta Rekalde'k, ezetz ba..., aizearen aurka joiazela, ta oker andia zala ori... Dena alperrik!*

*Ta jakiña!, Rekaldek esandakoa gertau...! Ezin, bada, aizearen aurka ingelsengana urreratu. Gero be, aizea andituz joan zan; eta sekulako ekatxa sortuaz, ontzi guztiak sakabanatu ziran.*

*Eta an ibilli zan egunetan gure Rekalde gaisoa, bate-tik bestera, ontzi galduak ezin salbau ta baturik. Baretu zan noizbait ipar baltza, samurtu zan itsasketa, ta gureen alde jarri aizea. Ezin era oberik, eta olan esan eutson Rekalde'k Medina Sidonia'ri: au dogu au aukera; eraso daiogun etsaiari, laster dogu geure menpeen-eta...*

*Eta Medina Sidonia zirtzillak onela erantzun: ez deust erregek etsaia jotzeko agindurik emon. Bira emon, eta goazan geure etxetara...!*

## ERIoTZA

*Ontzirik erdiak bakarrik eldu izan ziran gure portuetara. Urpera joan ziran beste guztiak; eta eurokaz bat guretariko ainbat mutil eder.*

*Bobadilla dalako zaldun batek emon eutson barri baltza erregeri. Iñongo ikera barik, zurrin eta isillik artu ebazan erregek zaldunaren itz garratzak. Medina Sidonia-ren jokabidea gorai patzen asi zan, urren, zaldun ori. Eta onela erantzun eutson asarre erregek: Ez neutson nik bira emon eta iges ona etortekorik agindu dukeari.*

*Arpegi illun, eta oi u bildurgarriz esan ebazan erregek itzok. Eta euren garratzasunak jota, andik egun batzutura il zan zaldun doakabea.*

*Egun beretan il zan gure Rekalde be, Coruña-ko kaiean, ondamendi onen ganorabakeriaren atsekabe samiañak jota. Berrogeitamar urte eukazan.*

URKIOLA'k.

# SOKORRIKO AMA

## (Urruña'n)

### MEHATZE

Urruña'ko Eleiz-Nagusitik km. er dira, ingurutako muiño eder baten, baseleiz ospetsu bat dago.

Len Mehatze izenaz ezagutua zan Gaur bere sarreran, aurrekaldian, auxe irakurri gainke: AMA SOKORRIKOA.

\* \* \*

### INGURUAK

Gure Euskalerrian aurkitu leiteken tokirik ederrenetariko bat dogu.

Bere alde batetik Urdatxuri'ko ibarra ia osorik, andik Larraun mendia ta bere mendi saietsak, beste aldetik Kantauri itxasoko olatu ezikaitzak...

\* \* \*

### ARRISKUKO AGINTZA


Hendaia'ko itxas-gizonak 1627'garren urtean Inglanndarren aurka La Rotxele'n gudukatu eben. Inglanndarrak egozan an eta euskaldunak inguratu jakezan.

Re izeneko ugartera eldu ziran gureak, baiña alako baten eta berealaxe, itxas-aizea gelditu zan eta Hendaia'tarren guda-ontziak etsaien su-izkില്ലuen danbadan menpean geratu ziran.

Euskal itxastarrak orduan Jainkoaren Amari erregutu eutsoen, arrisku aretatik jaregiten ba'ebezan txadontxu bat eregiko ebela aginduz.

Zeruko Amaren laguntzaz, andik laster, itxas-aizea geldia, benetako aize bultzagille biurtu zan. Inglanndarrak laga eta pozarren euren etxeetara biurtu ziran.

Hendaia'ra eldu ziranean, bereala bete eben euren agintza ori eta Hendaia orduan Urruña'gaz bat eginda egoanez, erri onetan jaso eben baseleiz dotore au.



Oraingoa 1831'koa da, baiña lengoa 1793'koa za . eta suntsitu egin eben.

\* \* \*

### IBILTE DEUNA

Len baten, Gorpuzti-egunean, jentea ibildeun edo erromeri alaiz bertaratzen zan, baiña orain ibillaldi au orrillaren irugarren igandera aldatu da.

Uste aundia dauke inguruko itxastar, baserritar eta erromesak euren «Ama Sokorrikoa» gan: batzutan euri mamintsua, besteetan egualdi ona gartsu eskatzen dautsoez.

Argazkian, bere ezker-aldeko zugaizpean, arri-tenteak ikusten dira. 1855'garren urtean kolera-gaisoz edo izurritez ildakoak illobiratu ziran tokiak dira.

\* \* \*

### URRUÑA ZABALA

Urruña garai artan eta XVII gizaldira arte oso edaturik egoan: Hendaia, Ziburu ta Biriatu bereak zituan.

Lapurdi'n aundinetariko erria zan: Donibane Liotzun'etik Bidasoa'ragiño, eta Kantauri itxasotik Larraun mendi politaren tontorreragiño.

Gaur egun, be, Behobia auzunea bere muga-barruan aurkitzen da. Orregaitik, Urrugne «bost erriberatar erri» izedaturikoen artekoa da, eta Uxin errekatzuaren ego-aldean dagon Soko'ko ondartza txukun eta txarmante be, bere udaletxeari guztiz dago gokia, beragaz erri osoa egiten dau.

\* \* \*

### BINGEN DEUNA

Fourkade'k bere «Trois cents ans d'histoire au Pays Basque» idaztarian, au da «300 urte Euskalerriko kondairan» diñoanez, eleiz au asiera baten X mendekoa ei zan, Euskalerrri guztian zarrenetarikoa, baiña gaurkoa XVI'ekoa ei da.

Oso txairo ta pinpiña da, goialdi-txu baten eregia.

Bere kanpantorreko ordularian, lateraz idatzitako itz gomutagarri oneik irakurri geinkez: «Omnes vulnerant, ultima necat». «Ordu guztiak zauritu, azkenak il».

Sarrera txukun eta eder bi daukaz. Barruan, eta bereizgarri lez, Sanson'n'en irudia iztokia eusten. Erri lauak diñoanez, oneri surretetik tiratzen dautsoenai, indarrrik aundienak emoten ei dautsez Sanson idartsu onek.

ARREGI'tar Josu'k

# ARNASA BARRIA

## ABADEAK URRI

Eleiz gizonak gure erri maitean, gutxituz doaz. Siñistedunok larritasun eta kezkaz beterik aurkitzen gara askotan nora ete goazan igarri eziñik.

Baiña danen gain, itxaropena dogu Jaunagan Berak estutu arren ez gaituala itoko ba-dakigu ta.

Jaunak, noizean bein, abade barri bat bidalduten dau gure errira, eta orduan; bai gure biotza zabalduen dala, ta, arnas barri batek aize-barrituten dauala zoriz-zoriz.

\* \* \*

## IÑAKI MUJIKA

Orrelakoren bat jazo zan urrillaren 18'an Bilbo'ko San Anton Eleizan: Iñaki Mujika, 27 urtedun mutil gazte, jakitun, mardual eta zintzoa, abadetua izan zanean.

Elizkizun berezia benetan: 55 abade, gotzaiñagaz bat, alkar meza esaten eliza eliztarrez gorano beterik, alboetatik zart egiteko eran.

Zilimoniak, ezin obeto gertatuak; euzkerazko abesti politak ondo zuzendu ta abestuak, orgaño ta eresiak doñu zoragarridunak.

Benetan elizkizun ezin ederragoa! Neu beintzat zorabioturik nengoan eta danā amaitu zanean eliz gelan, gotzaiñari esan neutson: Jauna (Ordeatzaillea, Uriarte Jauna zan), Gotzaiña, fin, jakitun goientsu. Zilimonia biribil eta ezin ohea. Ikusgaia ta mordera, Bersallesko erakoa!

\* \* \*

## ITXAROPENA

Elizatik urteeran, danak arriturik iñoen: Zer da au? Olako ikusgarririk! Guk, abade urtetsuok, pozez urturik, begar ta negar, pozezko negarra, ikustean gure abadetzako lana esku gazteetan geratzen zala ta abade gazteok indartsu aurrera eroango dabela-ta.

Urte etan abadetzā baztertua ta uxatua izan da.

Materialismu-gai zalekeriak bultza egiñik jende-aldra aundiak, batez bere gazteen artean abadetzā atzeratsutzat artu dabe; ebanjelioa ta bere erakutsiak zorakeria dirala diñoce.

Orregaitik abadegai gutxi, Aitaren arlorako langille gutxi.

Guk, baiña, itxaropena ez dogu galdu.

Urrillaren 18'an ikusi genduana ikusirik gure itxaropena guztiz indartu zan.

\* \* \*

## GAZIEAK

Izan bere ikustekoa zan gazte bat abadetuten ikustera ainbat eta ainbat gazte, zorabioturik etortea.

Or emen agiri dira gazte batzuk oraingo gaztediaren jokera ankerra ta zikiña ikusirik, begiak zabaldu ta bide onera biurtuten.

Ziur nago, nekez, baiña, geidiro-geldiro, asko elduko dirala euskal erriko lorratz oneara!

Abade barrien lanagaz, geiago ta geiago etorriko dira gazteak elizako arloetara.

Bear-bearrekoak doguz abadegai ugariak euskal errian eta mundu guztian, ebanjelioa ereiteko.

Ondiño ez da asmā ebanjelioak baiño eziketa obarik sortuten dauan beste jakintza edo erarik.

\* \* \*

## URI ZARREAN

Gure abade barri onek diakonu izan dan bi urte onetan, Bilbao urizarreko gaztediaren ardura izan dau, ta lan ederra egin be bai.

Aurrerantzean bere lan eder orreri jarraituko dautsola uste dogu, orretarako ondo baiño obeto gertautā dago-ta. Zorionak berari.

# GIZADIA! JAGI ZAITE! (1980'ko GABONETAN)

GIZADI JAGI ZAITEZ!  
GAUR DOZU EREA  
BELEN'GO EZTALPERA  
EGARRIZ BEGIRA.

UMERIK EDERRENA  
DATOR GAIZKATZERA  
AITAK AGINDU EBAN  
MESIAS DANA BERA.

DEI TA DEI IBIL ZARA.  
GIZADI LENENDIK  
UME ORREN EGARRIZ  
GIZALDIETATIK.

ETORRI DA ZUGANA  
ITXARON ZENDUNA  
ORAIN UKATZEN DOZU  
AINGERUN ZORUNA.

INOIZ BAIÑO GEIAGO  
GIZONEN BARRUAN  
ZUZENTASUN MAITASUN  
GURARI BIOTZAN

ELDU BELEN-ALDERA  
ELDU ARIN-ARIN  
ZURE EGARRI BERO  
ANTXEN ASE DEDIN.

ALPERRIK ZABIZ GIZON  
GIZADI KONPONTZEN  
JESUSENGANDIK URRUN  
EZ DA BAKEIK EMEN.

SARTU ZURE BIOTZA  
UME ORREN BARRUN  
ANTXE DAGO BORBOR  
BAKE ITURRIREN GUN.  
ORAINGOAN EZ ALDE  
UME ORRENGANDIK  
BERAGAZ ALKARTURIK  
BA-DA ZORIONIK.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

# IZADIA'RI ITZALA

Neure semien baratzea Lemoniz'etik zazpi aneinek aldenduta dago. Ango Zentral Nuklearra lazter asiko eida ibiltzen.

Bildurra? Ezba; ikusiko dogu. Neure ustez belbillak dirala ta urtian datozen ain beste eriotza, eztau beinguan ekarriko. Nok dauko bildurra belbilla artzeko igandietan uri nagusitik iges egiteko? Aurrerakuntza bearrezkoa da.

\* \* \*

Gizadiaren onerako ala galtzerako egin da ikaragarriko ola andi ori? Nik ez dakit.

Milla aldiz milloiak eraldi bera eregiten.

Beste aldetik, gomuta biar dogu, aurrerapen guztiak euren asi-aldian, beti izan dabezala arerio amorrotuak: Lurrin-indarrak Fulton'en denporan; tximistargiak Edison'n aldian. Orregaitik nik ezdot ezer esango Nuklearratzaz.

Baiña gauza bat argi ikusten dot: Milla aldiz milloio orrek eraldi dira Izadiaren aurka.

\* \* \*

Geure Euzkadi'ren baster polit-polita ondatu dabe.

Atxen artean umeak ezdabe karramarrorik arapeuko, nagusiak zugatzen gerizpean erdi lo gagozan artean txorien eresia entzuten.

Ango bazterrean edertasuna ta poza betiko joan jakuz.

Eta geure biotzean itzi dausku, nola edo alan Izadiari lagunduteko gogua.

\* \* \*

Adibiderako edestuko dautzuet geure baratzean jazo dana:

Ingurututen daun esia, neure semia artazi andiaz palaxatuten eguan. Bat batez ikusten dau abi anditxu bat: Zozuen abia. Lar ebago dauz adarrak bere aurrian. Orain agirian dago abia. Etorriko ete dira zozuak bertara, ala ondatu dogu bere abia, betiko?

Ba datoz bai ondiño. Orain gu gara andik urrinduten garonak.

Egun bi igaro dira. Ikusi dogu zozo baltza andik urten dala, eta arnasa geldi-erazota, ez izteko an lagunen usña, urreratu ta... ba-dagoz bertan arrautz bi.

Orain zozua da angorege. Gu ez gara igaroten andik.

Umeak goiko aldean bakarrik olgetan egoten dira; ta etxetik urteteko beste bidea ta beste atea artzen doguz.

Zozo erregea, bakean eta zorionean azi zeure umeak!

## GOMUTAGARRIAK

*Zegaitik ez oroitu  
gudarien gurenda?  
Azpiazu'tar Iñaki'k  
dan-dana edestu eustan.*

\* \* \*

*Geure guda galduta,  
ez biotzen kemenak  
iritsi eben gaztiak  
jarraitu, dala onena.*

\* \* \*

*Doixtarrak, geure aurka  
(Gernika eztozu aitzuten)  
ekin dabe luzaro,  
Aberria ondatuten.*

\* \* \*

*Ba duaz, ba, Bretaña'n  
Ikurriñan atzian,  
doixtarren blokus artzen:  
Agertzen da an, aurrian.*

\* \* \*

*Bultz-bidetik aurrera,  
ezer ez estaltzeko,  
erraza da etsaientzat  
talde osua birrindu.*

\* \* \*

*Abade eurekaz dauke.  
Autortu ta Jaunartu  
egin dabe geyenak.  
Ilteko trankil dagoz  
ta ba duaz aurrera.*

\* \* \*

*Iñaki jauna dabil  
batzutan lenengoaz,  
arrisku nagusian;  
beste batzutan, barriz,  
epelak adoretzen  
geratzen dala, atzian.*

\* \* \*

*Zegaitik ez, doixtarrak  
eztabe danak erail  
metralletan boladaz?*

\* \* \*

*Ikusi dabelako  
datozala gixonak  
bulartsu-biotzdunak.  
Euren menpian, ziur,  
egongo dira obe,  
frantzez azpian baño.*

\* \* \*

*Leyo txikitxutik  
zapi Te Deum'a abestuten  
asi da Azpiazu jauna.*

UTARSUS.

# IRAKASLEAI

## Goiria

Inglaterrako Ezkuntza-Katoliko Buruak umeak obeto ezitzen alegindu daitezela eskatu dautse irakasleai. Ona aolkuak.

1. Ume guztiak dauke eskubidea besteak eurei itzala ta begirunea izan dagitsen.
2. Bere egiteai erantzuten irakatsi bear jako umeari.
3. Bere naimena sendotzen lagundu bear jako umeari bere gogapearen esan-agindua egin dagian.
4. Bere ikastaroak bere bizitzia-dei-zatia dirala jakin-erazi bear jako umeari.
5. Naturalismoaren aurka jokutzen irakatsi bear jako eskolan umeari.

Orobat Ezkunde-Buruak diñoanez ainbat gurasok ez dabe betetzen euren eginbearra etxean umeari buruz. Ainbat amak etxetik kanpora lan egin bear da, ume asko gaizki ezitzen dira. Bide batez eragozpenak be aitatzen ditu.

1. Umeak len baiño azkarrago asten eta eltzen dira.
2. Orairgo aurrerapideak - egunerokoak - aldizkariak - irratiak - telebisak - zineak - lan kaltegarria dagie onetan.
3. Sendia makaldu egin da.
4. Irakatsi-era barriak illunpeak sortu ditu irakasleetan ezkunde-gaian.
5. Kaltegarri da umeak eta gazteak garaia baiño lenago eskola edo kolejioa itxi ta lanean astea ta euren dirua eukitzea.

Aolku onak, onurakorrak ziñez. Gaurko irakasleak beteko baleukeez mesede aundia litzake gure ume ta gazteentzat.

# XABIER PEÑA

## Goiria

*Il jaku Peña, Xabier ona,  
euzkera-maxu argia;  
eriotz balzak aiendu dausku  
gure aizkide mamia.*

*Lurpean datza bere gorputza,  
illotzik bake aundian;  
bere gogoa zorionez da  
zeru zabal-ederrian.*

*Xabier ona estaldu jaku,  
betiko galdu ludian;  
egada gozoz betiko sartu  
azkenik ez dun bestian.*

*Kristau leiala azaldu izan zan,  
danentzat anai-aizkide;  
euzkera-zale zintzo-trebe ta  
une danetan JELKIDE.*

*EUZKERA AMA negarrez dago,  
negarrez euzkal izkiak;  
itun-samiñez naigabeturik  
euzkal idazle guztiak.*

*Agur aizkide, agur Xabier,  
eskerrak danen izenez;  
Aita Jainkoak euko al'zaitu  
zeru-goietan zorunez.*

Eibar - urrilla

EUSKERAZALEAK  
TALDEAREN  
EGUTEGIA  
1981, eguneroko orriaz  
ARGITARATU DA

**BIZKAPKO**  
**AURREZKI-KUTXAREN**  
LAGUNTZAZ

GURE BAZKIDEAK  
ETA **ZER** ALDIZKARIAREN  
ARPIDEDUNAK  
DUBAN ARTU AL IZANGO DABE  
EUSKERAZALEAK TALDEAREN  
BATZAR-ETXEAN  
COLON DE LARREATEGI, 14, 2.º  
BILBAO



# GEROA

## GIZONAREN SORBURURA

Idazti barri bat agertu jaku, izen onegaz: «Eriotza-Ostean». Morton Kelsey'k idatzia da. Idazle onek kon-dairaren lenengo egunetara daroa irakurlea, baiña ibiltaldia egitea ez da igarotakoak jakiteko, bestera baiño; Etorkizuna gure betiko ardurea dala irakasteko.

Morton Kelsey, liburu-idazle au, olerkari, psikologo eta episkopalian-darren abadea be ba-dogu.

Orain, urtero, eriotzea ta azken-or-dua gai dirala, Notre Dame Ikaste-txean ikastaroa zuzentzen dau. Bear dan lez, bere burua irakurledun pas-toralgintza jakintsura ta krisiñau-ekintzen zeregiñetara lotuta dauko.

\* \* \*

## GAI SAKONAK

Sinismenaren azterketak eta gogo-ramenak argitzeko ta barriztatzeko bidea dogu ba liburu au. Izan be, eriotzeak eta geroak oraingo bizitza au zelan erabilli ondo jakiteko zer-ikusi aundia dauka.

Kelsey'gaz azterpen au egiñez, abadeai be gauza batzuk bururatzen jakuz: Eriotzearen gura-eza, zerua al-perrekoa ta ardurabakoa ete dan, in-pennuaren arazo bizia, illezkortasu-na...

Marxisten salakuntza be or ager-tzen jaku barrero: Bizitza gogorra eroatera sinistedunak gogotu daite-zan, geroko betiko atsegiña eskintzen dogula, orrelan emengo zuzentasuna ta bizitza obearen billaketa alde bate-ra itzita.

\* \* \*

## OARMENA OIÑARRI

Parmenides Grezia'ko filosofoaren eta aspaldiko atomo edo kizizaleen eritxiak be agertzen dira: Mundua, izadia, kosmos, betikoak diran atal-txu bardiñez osotua dala. Oiñarri orrek be eragin aundia dauka libu-ruan.

Munduan diran gauza artean ga-rrantzitsuena, oarpena (experientzia) d'ala diño, ortik agertzen dala mun-duaren izatasuna-ta.

Eta zeru, inpernu ta gogoen oarpe-rik iñok ez daukon lez, obe ei da Ba-rrri Ona teologoen ikuspegi berezi ba-rik agertzea.

\* \* \*

## GIZONEN SINISMENA

Ainbeste guzurrezko irakaste, ain-beste sinisbide oker agertu ondoren, Kelsey'k gure betaurrea illundu egi-ten dausku eta gero gure sinismena ezin geinkela baztertu eta bere egiak ez dirala aitzu bear diñosku.

Orretarako oarpenaren gaiñetik, gizaldi guztiak eta erri guztiak jaiñko baten edo askoren sinistea izan dabe-la diño Kelsey'k.

Gizonik geienak, azken arnasa emon dabenean, eriotz-ostean zerbait ba-dagola sinistu dabe.

\* \* \*

## BETIKOTASUN-EGARRIA

Gaur alegin aundiak egiten dira gi-zonai sinismen ori kentzeko; Olango sinisterik ez dabela bear, eriotzearen gogoramena gainduteko bakoitxak gogotsu izan bear dauala, umeak edo agureak bear daben makilla barik bi-ziko dirala ta olakoak esaten jakez.

Baiña or itaun bateri ez dautsoe erantzuten: Gizonaren Jainko ta betikotasun-billa ibilte ori nondik sor-tua ete dan. Ez ete da ori Egilleak be-rak ezarria? Gizonak betiko biziaren guraria daukela ezin leikae ukatu.

Morton Kelsey'k, bera be kristi-ñaua da-ta, betiko bizitza gogoran-tzen dausku.

\* \* \*

## BIZITZA BARRIA

Aldatu egingo garala diño, baiña gure izatean geratuz. uste izan eta iruditu geinken baiño askoz geiago, bizitza sakonagoz eta obeagoz biziz.

Jesukristo'k, bere neke ta samiñez, kurutzean gure oben-ordaintzea egin eta zorionezko bizitza ori irabazi eus-kun.

Zuzentasunak berak be ori eska-tzen dau: Ontasuna saritu ta gaizta-keria zigortuko dan tokiren bat izan bear.

Garbitokia (bai Garbitokia) Dan-te'k bere Divina Comedia'n eta ango gizagurenetan gogoratzen dauan lez, Morton Kelsey'k gure gurariak bete-teko Jainkoak emondako sasoi ona gogoratu dau.

LETONA'k

# BEGOÑA BALTZA

## EUSKAL ABIZENAZ

Orduko egunetan ni kolonbiar Euzkadi'n nenbillen, Antiokia'n. Kolonbiako Euzkadi'n, bere mendi askogaitik, eta aran orlegiakgatik, beren meategiakgatik, itsumustuan edozeiñek aurkitzen dabezan soin-itxurak gaitik eta, be, ara eltzen danak beti eukiko dabelako solaskide lez onako Isaza, Etxabarría, Olarte, Aristizabal, Saldarriaga, Zuleta, Aranzazu, Uribe, Alzate, Gabiria, Olozaga, Marulanda, Etxeberri, Iregi, Mendoza, Zuloaga, Zulategi, Merizalde, Etxabe, Mendieta, Londoño, Salazar, Txabarriaga, Upegi, Agirre, Orozko, Berrio, Arbelaez, Otxoa, Arismendi'ren bat edo beste batzuk ondoriotasun berdiñeko sustraibidez.

\* \* \*

## BALTZ EUSKALDUNA?

Medellin'en aurkitzen nintzan, uriburuan, sendi-zergari buruzko azterkuntza bat egiten. Azterkuntzalari aldra bat aukeratu bear gendun. A dura orretan nenbillela, nire idazkari-meak jakin-arazi eustan euzkaldun batek ikusi nai ninduela. Idazgelara ekartzeko agindu neutsanean, ate ondoan agertu zan ogei urte baiño gitxiagoko gazte baltz bat, sendoa, itxura onekoa, ez ain aundia, arpegikera legun eta fiñakaz, agin zizelatu, dirdaitsuak, narrua gutziz illuna, ule kizkur baltz kiskalia, esku-barruak eta atazalak zuri-zuriak, ainbat nabarmentzen ziranak atzamar gañeko zurbaltzpean (ebano).

Nire Kolonia'ko lenengo urteetako ezjakiñean, iru enda nagosi eta berein geiago matazaten ari dan lurraldean, onela esan neutsan alako ikerlari bakanari:

—Parkatu, beste jaun bat artu bear dot. Nai badozu itxaron apur baten or kanpuan.

—Ez. Begoña ni naiz. Euzkaldun lez aurkeztu naiz nire aitaren abizena Begoña dalako, eta jaio zan, atanbe, Begoña'n. Ama birjiña entzutetsu bat dagon lekuan. Ni euzkaldun sentitzen naiz. Magdalena'tik nator nun nire aitak lan egiten daben ango petrolio alor batean.

—Bueno, esan neutson, zer erantzun ez nekiela —jarri zaitetz eta egingo dogu berba. Egon zeinkez bai arro ainbeste sufridu daben bi enda zarren odola daruazulako. Emoidazu zure eta zurekikoen barri. Nun ikasitakoa zara?...

\* \* \*

## ZEAZTASUNAK

Orrela jarraitu gendun alkarrizketan. Begoña lotsorra izanez gaiñera amaierako bokal batzuk jan egiten, ebazan eta eseak be bai, orrelakoak ziran, zer esanik ez, vasco = vaco. Mutilla batxiller ernaiá, atsegiña eta modutsua zan, orrez gaiñera eztot esan bearrik kargu txiki ortarako aukeratua izan zanik.

Antiokia'ko mendidiz aindiko bultziak zearkatzen dabezan mulato errietako auzuneak ikerkatu ebazan, bi ibai aundi besapetzen dauzana, Magdalena 1.500 kilometrokoa eta Kauka. aren ibai-adarra, 1.200 kilometrokoa.

Geroago galdu nebazan euzko-kolonbiar, Begoña, baltz maitagarriaren bizi-lorrazak.

Askotan topo egin izan dot latin-amerikar gizartean onen antzeko gertakizun batzukaz, jatorrizko ezaumena bizi-bizi azaltzen dabenak, kontatzea merezi dabenak, abertzaletasun garbiko gogo barruko bioztasuna agertzen daben gauzak edes-tutzen diran lez.

\* \* \*

## BESTE EUSKALDUN BAT

Aldi artantxe, andestar bultzian bidazti nenbillelarik, erdiko mendilerroaren barren-aldetik, kolonbiar lutelestia banatzen dauan iruetako batetik, jaun bat urreratu yatan euzkera oiez batez agurtzen nindualarik.

Arango inkinierua zan, burnibide lagundikoa, urteak emon ebezana euzkaldunen berbetea ikasten, iñoiz beren lurralde menditsutik urt'n barik.

Beragaz eroian Euzkaltzale Bazkuna'ko Gramatika bat, garai batean asko erabilia gure aberri izkuntzearen ikasle artean, nire belaun-aldikoak aren orrialdetan ikasi eta emon genduzan euzkerazko lenengo oinkadak, 36'an ondatuak.

\* \* \*

## ABIZENEN JATORRIA

Emen, Kosa'k eta Andagoya'k itxas-ertzekatu eben lurralde ontan, egunoroko arazoa da euzko abizenen esangurea edo jatorritasunaren barri-emotea edo jakin beintzat, euzkal errodonak diran ala ez diran.

Xerox izan da niri lana asko laburtu daustana, gogartegien mirarizko askotzea.

Berein enda nastekuntzazko Lurraso ontan txarto geratu nai ez dauan euzkaldunak, bilduma on batez orniduta etorri bear dau, nire lagun ona dan Jaime Kerexeta'ren antzera, ba, doan edozein tokitan asko dira eta aundia da egarria, beraien barri zerbait argitzeke.

\* \* \*

## ONDATUAK

Txuntxur Egokoa ondo jakiña da. Baiña ez ordea gure jatorritasunezko ugaritasun aundia, adibidez, Bolibia'n, nungo ludiztian ibili izan giñan zidarra, urrea, platin-billa, eta, enparantzetan, ezpatalari burrukak gaztelarrakaz.

Peru'n, ango urietan errotu ziran zenbatu-eziñalako ogipeturiko erri-gizonak, errege-ordetzazko aldi artan, eta nungo koloniar kale estuetatik sortu zan, basatien artean basatiena atara zan Agirre'tar Lope'ren miatzezko egitada izugarria.

Kolonbia'n bizirik dirauen euzkal abizinen bilduma 3.500'tik gorakoa da, eta onei geitu bear geinkioezan ez gitxi, eroburuetatik ondaturikoak.

\* \* \*

## MENDI-LERRO EDERRA

Kolonbiar Sartaldeko Mendi-lerroan sartuta, Magdalena ibairen goanean, errixa bat dago, bakartua, Gallardo deritxona. Suaza udalarena (gure Okendo aran zoragarriaren toki-izena).

Suaza ezaguna beren eskulanezko jipi edo panama, las-tozko kapelagintzagaitik, mueta bereziak diranean, ondo toles-toles eginda txaleko baten sakeltxoan sartu al daitezkeanak.

Mendi-lerrotar lur bazterra, azpildura aundi eta ibai amiltsuena, aldapatatko baserriz, ederra da.

Oraindik aspaldi ezjala, burditarako labur-bide bat eratu eutsōen, tropikoen egiten duan lez euria egiten ez duanean, jeep batek onartuko leukona aren 1.800 metroak igotzeko.

Euria egin ezker, mandoek bakarrik eta zaldi baratxek dakite bidea zapaltzen.

Bada or, Iraillaren bederatzigarren egunean, kondorren ezkuta-tokian, baserritareri zurbilla, gosekil itxuraz baiña garbi, domeketako jantziz, egal-erdiko pontxo edo longainaz, kalentiar kapela esku eskerrean eta eskumelean kañaberak naiz beste edozer ebagitzeko baliotsua dan aictza, mendiko ibillian abestuten dauz —arritu bediz nire aberkidu euzkaldunak— onako bertso auk:

*Aranzazu monte umbroso  
hornacina de mi amor,  
pedestal que hizo el Señor  
a la que es amor hermoso.*

*Custodiando su ganado  
te apareciste a Rodrigo  
desde entonces más amigo  
fue de ti el Vascongado.*

*Cantabria tierra gloriosa  
ensalza tú con delirio  
a la que es del cielo cirio  
y más linda que la rosa.*

\* \* \*

## ELEIZA EDERRA

Elizea goitsu, aundia andestar urrumetatik ikusteko modukoa, zuria da.

Eguzki goritan dizditzen diran ziñezko azalez estaldua dago.

Eliz barruko sarreran, korura igotzen dan kañaberazko zurubia.

Armoniu bat az ornidutako koru apala, biotz-zirraraz, gure Arantzazu'ko organura eroaten gaituna.

Jauretzea, bipilla, kolinetadun dorrea dauka.

Arrigarria, lurralde artan, lurrikarakaz mozkindurik baitagoz baserrietako eleizak.

\* \* \*

## MARGOAK

Ikusgarria izan zan Bogota'tik asita egindako 400 kilometroko ibillaldia, jatsi eta igon, azkenik bako mendi-elestia, kafealorrez illundua, lurzulo sakonezko eta beti lañopean dagozan

erpiñak, begiztatzeko baserritar oñezko eta aloborekoen jaialdia, bide-ziorrez, inditar errenkadatan eldu diran promeseruak, arizko soñugailluak astindu eta amerrindi txirulak joaz, itunak eta ots bakarrek, bazterturiko biztanle auen bizitak lakoak.

Begiztaten ziran, urrundik, euren jantzi nabarmen margotsuak gaitik, inpernu gorriak, Bariku Gurenako moraduak, orlegi bizi-biziak, oriak, urdiñak, lilak... orrela estaldurik euren naigabe, tristura zarrak.

Guztitarikoak moltzotzen, korapillatzen dira elizako atondoan eta edaritegiko mostradorean.

Ori guztia lur-lantzetatik atarata dago. Onuragarria izan zan etortzea maister eta partekari auri entzuteko gaur, otseiñak euren aitasoak, esanik, danak batean, milla abotsetan, gauza orreik gure Erriari, Euzkal Erriari, guztiz lilluragarria eurentzako.

\* \* \*

## ARANTZAZU'KO AMA MUNDUAN

Bada gertatzen da, aldare nagosiaren gorenean, oso goi, ikurriñen artean, eskaiolazko irudi bat dagola Arantzazu'ko Andra Maria'rena, au be aundia, urregoriz bordatutako soingañeko luze batez antz-aldatua aren oi-danezko jarlekuko elorria.

Baiña da, eztago zalantzarik, Gipuzkoa'ko Amandra bera. Aloña'koa. Biak, euzkalduna eta kriolloa, eregiten dira bide malkartsuen goi-une amaieratan.

Elizako atarian, aln ugari dakusguzan ziñ-oroigaiak adierazten dauskuenez zabala da, artzen dabezalako eundaka leguatetik, datozen inguruetako nekazariak, oi diran irudiak eta erlijio gauzak saltzen diralarik, danak Arantzazu'ko Amabirjiñari buruzkoak.

Gallardo'ko Arantzazu'ko Amabirjiña, Huila'ko eskualdean, eta «Bederatzigarrena gure Arantzazu'ko Andra Mari Miraritsuaren Irudia», munduan edatu ziranetako bat.

Kolombia'n, nun gurtzen diran beste bi, Kuba'n, Mexiko'n, Venezuela'n, Peru'n, Uruguay'n, Arjentina'n, Filipinas'en, Txina'...

\* \* \*

## BEGOÑA BALTZAK EKARRI GAITU

Andestar Arantzazuko Santutegi onen oñetan, egia da bai, ez da sortzen elorri arantzarik. Kareto bigunak loratzen dira eta azukara baltza eta paitarra emoten daben kañaberak goi-sapalda igarotzeko.

Orain kontuan jausten naz «Begoña Baltz» onak gaituala, beren odoletiko zuri eta illunez, Medellin'etik, Aginaga eta Mendigoitia'tar Mikel eibartarrak eregitako uriburua, ala-olako bizi-edestilariren batek agertzen ez ba'dausku On Mikel jauna, tokigune otz, legor eta arrotzean jaio izan zala, ekarri gaitu «Begoña Baltzak», Neiva'ko Egoalderano, Ospina'tar Diego'k eragitateko uria, arabar sustraiburukoak.

X. de URIBITARTE'k  
(MUNIATEGI'tar Sabin'ek euzkeratua)

# PETRALANDA'N

## OGI BEDEINKATUA

Bizkai'ko Akelarre da Petradanda. Dima'n Lamindano'ko auzoan dago sorgintegi au.

Andre galant eta aberats bat bizi zan Dima'n, berekoi ta arroa oso.

Beste eliza askotan oi dan lez, egi-ten zan erri aretako elizan be: Meza nagusi bitartean bedeimkatutako ogi-zatitxuak eliztarren artean banandu.

Andere aberats eta arro ori be domeketako Meza nagusira joian astero; eta besteak lez ogi bedeinkatu edo otondo ori be artzen eban.

Eskutik jausi egin jakon, bein, otondo ori, eta arrokeriaren arrokeriz makurtu nai ez eta, bertan itzi eban bere otondotxoa.

\* \* \*

## GAISORIK

Ez eban egun a ezkeru gauza onik izan andere aberats eta arroak; ... ge-roago ta argalago, makalago, aulago, kaxkarragoa egoan, gaixoa, ...bere gatx ori nundin-norakoa zanik be ez ekiala.

Garai aretan, Petralanda'ra joia-zan, barikuan-barikuan, inguruko sorgin guztiak.

Areen arteko sorgin batek mutiko-txu bizkor eta ikusgura bat eukan morroitzat; ...eta ez jakon, ba, bein bere etxeoandreaaren isillean, sorgin batzar orretara joatea otu...?

Otu ta egin...! Gaberdia baiño askoz lenago eldu zan bertara. Aretx-tantai batera igon, eta an egoan muti-lla, batzar ori noz asiko zain.

Gaberdin inguruan, zits emetik, zist ortik, batu ziran inguruko sorgiñak.

\* \* \*

## OSABIDE EZKUTUA

Gauza asko ta asko azaldu ziran batzarrean; eta andere aberats eta arroak azken-domekan egindako lotsabakokeria be aitatu eben, besteak beste, sorgin zitalak.

Ondo barruan sartu jakon aretx tantai gainean egoan mutikotxuari, ango sorgin motz batek esandakoa:

—Eta ez don osatuko arropuz ori, otondoa egondako lekua miiiaz igurtzi ta igutzi garbitu ez daian arte.

\* \* \*

## MUTIKOA MEZULARI

Eta biaramonean, goizean-goizik, andere aberats eta arroaren atea, kox-kox, jo eban mutikotxuak. Etxeko neskameak urten, eta esan eutson:

—Zer dok, mutiko?

—Ixillikako mandatu bat etxeoandrea-arentzat.

—Sartu barrura.

Etxekoandreaaren gelaraiño eldu, ta:

—Etxekoandre...! Mandatu zorrotz bat dakartzut.

—Nork emonda?

—Petralanda'ko sorgiñak.

—Eta zer esan daustek sorgin oreek?

—Ez zarala osatuko, otondoa egoan leku a miiñaz, igurtzi ta igutzi, ondo garbitu dagizun arte!

—Eskerrik asko, mutiko!

\* \* \*

## ARROA APAL

Betarik galdu barik elizara joan, ...bere etxeo jarleku edo sepulturara urreratu, eta apal-apalik makurtuaz, ogi bedeinkatua egon zan leku a miiñaz igurtzi ta igutzi jardun eban luza-ro.

Lengo andere aberats eta arro a elizatik urten zanean, ez zirudin Arextixeko andere mengel, argal, makal eta gaixo a... Sendo, arretx eta bizkor joian bere etxe-aldera.

Urrengo barikuan, Petralandako batzarrean, auxe zan sorgin guztien aotan erabillen arazoa: ....

...andere aberats eta arro aren ustebako ta bat-bateko osatzea.

\* \* \*

## MEZULARIAREN BILLA

Ango sorgin batek esan eban orduan:

—Aurreko gure batzar aretan, zeltarien bat egon jonan emen, ziur asko!

—Ala bide don, bai... Zelan, osterantezan, ikasi arropuz orrek bere gatx orren osabidea - erantzun eutson sorginburuak.

—Ta orain, ...zer?

—Ikuskatu daiguzan gure bazterrok!

Zokondo ta bazter guztiak arakatu; ...eta iñor ez!

Alako baten, sorgin bat gora begira jarri, eta...:

—Aiko an, ...aiko an!

\* \* \*

## SORGIÑAK IGES

An egoan egon be, barriro, gure mutil zelataria... Zipli-zapla asi jakozan, bereala, euren orratzez sorgin guztiak.

Eta mutikotxuak bere larritasunaren miñetan...:

—Ene Jesus...! —egin eban deadar. Sorgiñak berba ori entzun... eta Jesus amenean galdu ziran guztiak.

ESTONBA'tar Manuel'ek

# CUBA BARRUTIK (IV)

## LANGILLE-BIZITZA

Joan daan illean langille onenen soldatak eta geienen lan egiteko go-goa aitatu genduzan.

Esandakoa egia da, baiña izaera orren susterrak edo zergaitiak be az-tertu bearrean gagozala usted dot.

Ez da naikoa alperrak dirala esatea; edo-ta alperkeria orren susterrak Cuba'n egiten dauan beroan dirala uste izatea. Ez. Onez gaiñera, Cuba'ko langillea, geien baten, alperri iza-tera beartuta dago.

Nok ez ditu bere aalegiñak egi-ten biar gaur baiño obeto bizitzeko, biar gaur baiño geiago irabazteko lan batera eltzen, eta abar, eta abar?

Zer egin bear guzti au lortzeko?

Ikasiagoa izan, lan geiago eta obe-to egin, eta abar.

Cuba'n, ostera, langilleak ez dau pozbiderik, ez dirubide oberik geiago ikasi arren edo lana obeto egin arren. Bere irabaziak bardiñak izango dira; edo zeozertxo geiago eskuratu nai badau, Fidel Castro'ren alderdikoa izan bearko dau.

Baiña onetarako bere eragozpenak ditu: alderdikoa izan baiño leen, iru urtetan bere asmo eta jokabideak ar-tertuak izango dira. Ondoren izango da sari apurren bat.

\*\*\*

U. J. C.

(Unión de Jóvenes Comunistas)

Daukan baiño zeozer geiago esku-ratu nai dauanak alderdi onetan sar-tu bearra dau, eta zerbait lortzeko jo-kabide gogorak jasan bear ditu.

Oneik Fidel Castro'ren alderdiko agindu guztiak bete bear dabez; iru urte oneitan ezin dabe ezetik esan.

Onela esate baterako, Vietnam'da-rrei, edo angolatarrei, edo nikara-guatarrei lagundu bear dautseenean, agintariak lan berezi batzuk eska-tzen dautseez. Lan oneik gauaz, edo igandez («igande gorriak») egin bea-rrekoak izaten dira.

Jakiña, lan guzti onein ordez ez dabe dirurik eskuratzen: «merituak» lortzeko baiño ez dira.

\*\*\*

## GOGO BAKO LANA, UTSAI

Zertarako lan egin beti utsean ibil-tekotan?

Beste askok be, bear bada, an eta emen be, bardintsu jokatu-ko gendu-kelata nago.

Zertarako gauaz lan egin, «igande gorri» izeneko igandeetan lan egin, kañaberak ebagitzen, akeita edo ta-bakoa batzen ibilli edo kaleak garbi-tzen saiatu, ortik sendiarentzat etor-kizun oberik ez bada lortuko?

Zertarako lan egin, lan berezi oneik egin ostean, langillerik onenak aukeratu bearrean, zuzendariengana barritsukeriz beterik doazenak baka-rrik sariak eskuratzen badauez?

Zertarako ainbeste aalegindu, eto-rri bako lan guzti oneik egunero sar-tu bear diran amar orduen ostean edo larunbateko zazpi orduen ostean egin bear badira?

Zeaztasun guzti oneik (edo apur oneik), irakurri ostean, kubatarren jokabidea obetoago ulertuko dogula uste dot.

Ez dira alperrak bero utsagaitik bakarrik: ba-da beste zeozertxu be, eta sarritan Cuba'ri buruzko liburue-tan agertzen edo azaltzen ez dana.

\*\*\*

## LAN SARIA

Ainbeste nekaldi eta burumin ostean, kubatarrek artu dagikezan sariak ez dira, guretzat beintzat, gauza aundi-rik: 900 edo 1.000 pesoko teleikuskin bat 600 pesotan erosi, sukalde bat edo ozgailuren bat edo «motobizikle-taren» bat erosi.

Eta onetan ezbardintasun bat ba-dogu: teleikuskin bat, esate bate-rako, ozgailu bat baiño errezago lor-tzen daue.

Eta onek bere arrazoia dau: telei-kuskiñaz Fidel Castro edo bere adis-kideen itzaldick sarritan entzun da-gikeez; ozgailua, ostera, bear-bea-rrezko ez daan tresna da edo gober-nuaren asmoak buruan sartzeko tres-na egokia ez da.

\*\*\*

## LANEKO ARRISKUAK

Lan asko eta asko sarritan arris-kutsuak izaten dira. Onela da Cu-ba'n be, izan. Baiña arrisku oneik az-tertzeko ez dabe astirik artzen.

Bat zauritzeak ez dautse askorik ardura antza, eta iltzeaz beste ain-beste esango genduke: lau edo seiren arteko lanean bat il ezkerero, arroz plater bat eta txitxarro batzuk aurre-ratzen dauez.

JOKABIDE ONEIK IKUSI  
OSTEAN, OTZ NAIZ BERO  
IZAN, NORK GOGOTSU LAN  
EGIN?

(jarraitzeko)

Piru LEGARRETA

# ETXE GORRIZKEA

## ARGA-INGURUAN

Amazortzigarren gizaldiaren azken-urteak ziran. Iruña'ko arresietatik ez ain urrin, Arga ibaiaren inguru-minguruetan, ostatu nabarmen bat egoan.

Bere orma zarrak aldien joan-etorriaz eta ornitzen eben arrien berezitasuna-gaitik, margo gorritzke euen.

Ondo baiño obeto jaten emoten eben an: Erribera'ko ardaus ospetsuak eta Ezkaba'ko txakolin parebakoak. Olako edariak ondo batzen ziran bazkal-orduetako bildots samur eta beste janari gozoakaz.

Ostatu onen ospea urrineko tokietaraiño eldu zan. Baiña sasoi aretako ostatuak lez, onek be bere ezkutua eukan, alegia ala egia zan ez ei egoan argi.

\* \* \*

## OSTATU ZARRAK LEZ

«Old Peggy Badford» izenezko inglandar ostatua txito ezaguna gertatu ba'zan bere garaiko bide-lapur aipagarrienak, Diek Turpin'ek, bertan urretan eta bitxietan altxor izugarria ezkutatu ebalako, Naparroa-aldean, gure arri gorritzko ostatuak be ez eban ospe txikiagoa aurkitu.

\* \* \*

## OSTATU-BARRUAN

Negu gogorrenetariko baten, gabaz, euriz eta aizez kui-kui bustirik, otziturik, zaldun bat eldu zan ostatura.

Ostalaria urreratu jakon adeitsu. Lenengo kortan zaldia itzi eta bereala aterpe barruko berotasunera eroan eban zalduna eta ke-zulo bazterrean jantzi bustiak legortu-azo. Gero aparti gozo ta beroa eskiñi eutson.

Zalduna erregearen serbitzuko gudaiburu edo kapitana zan.

Ostalariak ondoren, zalduna bere gelara eroan eban. Goian egoan eta igoteko mailladia olezkoa zan eta gizonen astuntasunaz zaratatsu biurtu zan.

Goiko bizitz-oiñean, barru-bide illun bat egoan.

Ostalaria aurretik joian argi-mutilla eskuan eroiala eta orduantxe, atzeko illuntasunean neska gazte batek ate erdi-zabal batetik urten eban eta zaldunagaz tril egin.

Bereala, surrumurrus esan eutson: «Jauna ez egizu lorik egin», eta beste barik ezkutatu zan.

\* \* \*

## GAU-GIZONA

Zalduna txunditurik geratu zan, baiña alde batetik guztiz nekátuta egoalako eta bestetik, denpora-alditxu bat igaro ondoren ezer be jazoten ez zanez, loak artzeko prest eta gertu egoan.

Orduan zaratatu bat entzun eban.

Zor eta lor, zirkiñik egin barik oartu eban une aretan zelan barru-barruan egoan erasea aldamenera astiro-astiro idegiten zan, eta bira egiñaz, aurrez urre bere pare-parean ostalaria aitzo zorrotz bat eskuan ebala agertzen jakon.

Itsumustuan gudaiburu aurretiaz aulki baten gaiñean itzi eban sakeleko su-izkillu txikia artu eta burrukarako gertatu zan.

Baiña arasea lengo tokira biurtu zan.

\* \* \*

## IRUÑA'RANTZA

Ez eban gure zaldunak gau guztian begirik itxi.

Biaramonean zurbil eta indarge atartera urten eta otseiñari agindu eutson ibiltaldirako zaldia gertatzeko.

Goizear goizetik ostatutik urten eta kaleratu zan. Gauean ikusitako neska gazte berberak atarte-osteko illuntasunetik arin baten eta erdi isillean belarriratu eutson: «Jauna joan zaite beingoan eta al bait ariñen esan egiozu Erregeordeari Etxe Gorritzka onetan jazoten dan». Zalduna Iruña'rantza abiatu zan eta uriko arresiak Prantzia'ko atartetik igaro zituan.

\* \* \*

## URKAMENDIRA

Andik egun batzutara, ia egunsentian, errege ordea, gudaiburu ezaguna lagun ebala, gudari ta ertzain banaka batzukaz, ostatura eldu zan.

Gudaiburu aurrelari zala eta oraingoan zurbiltasuna ostalariaren arpegian soilik agertzen zalarik, etxe guztia goitik bera arakatu eben.

Azkenez, beko upategira emoten eban amarruzko zulo bategaz topo egin eben.

Upategiaren azpian, premiña ta iradu barik, lur ta arrien artetik sakondu ta barrenagotu ondoren, ikuspegi ikaragarri baten aurrean aurkitu ziran: Ba-egoan egon an giza-azurretan! Iltegi txiki bat zirudian.

Orduan jakin zan ziurtasunez aienatu eta geiago agertu ez ziran askoren azken negargarria.

Len aitaturiko neska gaztea eta orain ostalariak baituta eukana, an bertan azpikeriz ildako baten alabea zan.

Ostalaria Iruña'ra eroan eben, eta epaitu ondoren, jentean aurrean urkatua izan zan. Ostatua be betiko itxita geratu zan. Antxe izan zan Napoleon'en aldian Espoz y Mina'ren aurkako gudaiburu gogor bat.

Egia ala ipuiña? Guri beintzat ez eusken an aparirik emon.

A'tar Jo'k

# ANGOSTO

Irakurlerik geienak, nik uste, izango ziran noz edo noz toki zoragarri onetan. Bakar-lekua da eta orregaitik atsedeen-leku arrigarria.

\* \* \*

Eleizan ez daukagu zer-ikusi aundirik.  
Ba-dauka konpondu ta barriztu-bearra!

Baiña antxe daukagu Andra Maria'ren irudi oso eder eta-esangura aundikoa eta euskaldunen aldetik oso maitatua: Irribarre maitekorra, alea eskuan, jesarrita. Umea bere altzoan errira begira eta bedeinkatzeko ziñua egiten, jantzi ondo tolestua...

Amalaugarren gizaldi-ingurukoa dala esango neuke eta ba-dauka Andra Mari askoren antza.  
Ederra ta maitagarria benetan!


\* \* \*

Alboan ostatu-etxe barria ta gozatsua, bere barrenean edatetxe atsegiña dauala.

Ba-zan antxiña be toki orretan bidaztientzat ostatua, bai na gaur olako bidazti fedetsuak urritu diran ezker, ibiltarientzat ostatua egitea be ez dago txarto.

Ez ete dira oneik gaurko bidazti gizarteratuak?

\* \* \*



Omezillo errekearen ondoan, ager-toki isilla ta otoitz-girokoa.



Antxiñako inguru zoragarrian, gaurko tankeraz eregitako ostatua.

Basorantza, zugatz-artean, maiak. Oneik ostaturako dirurik ez dauken eta izadiagaz artu emonetan urrago bizi nai danentzat.

\* \* \*

An errekatxuaren ondoan, Omezillo-ondoan, Andra Maria'ren irudia artzainak aurkitu eban tokia: Toki isilla ta otoitz egiteko egokia.

Izadira urreratzeko deia egiten dabela esan lei, an ur gardenetan bizi-bizi dabilzan arraintxuak!

\* \* \*

Eta inguruetan baso ugari ta ederrak, erri txiki ta politak, mendi-muiño ikusgarriak.

Baiña kondaira-zaleentzat tokirik ikusgarriena inguru aretan Valpuesta'ko eleiza, Burgos barruan.

Ainbat bider izan gara an, baiña beti aurkitu dogu itxita gotiku-tankerako eleiz ikusgarri ori: Bidaztiak diru gitxi emoten ei dabe eta abadeak ez ei dau idegi gura diru asko ez batzekotan.

Ori kondaira-zaletasuna!

Eleiz-inguruko etxeak, gaztelua, ostatuak... dana da ikusgarri.

\* \* \*

Zein dan kondaira-aldeko garrantzia?

Antxe euken euren gotzaiña autrigoi euskaldunak erdi-aroan.


Autrigoiak Nerbion ibriaren ezker-aldean bizi ziran eta arin ikasi eben erdere; guk orain diardugu ikasten. Zenbat agiri zar izan ete ziran eleiz-aretan, autrigoi kondaira argitzeko.

Eta non ete dira orain!

\* \* \*

Astialdi baten, ikusi Angosto ta Valpuesta euskalerriren ertzean!

OLAZAR'tar Martin'ek



ANGOSTO'ko Amaren inguruko iruditegia.

# URIGOITI (OROZKO)

Gure irakurlerik geienak dakien lez, gure mendi-zale-tasuna ondo sustraitua da, bada, gizaldi erdi baiño geieago daroagu kirol garbi osasungarri ori egiten-eta, geroago ta maiteago dogu bera, bada kirol orren bitartez edo kirol ori egitearren ezagutzen doguz Euzkadi'ko mendirik geienak eta beren inguru ta aldamenetako erririk geienak bere.

Orretara izanik eta irakurri dogunaz batera uste dogu zerbaitxu euzko gaztetxuei erakutsiteko tankeran gagozala, non zer ikusi ta ikasi dogun pizkat jakitun geralako edo ikasteko asmu onez geralako.

\* \* \*

## ITXINA'RA

Orixegaitik geien bat, erriko mendigoizale taldeko gazte-uen mendiko ibil-aldiren bat gertutzen dabeneko, eurer tartean gera zerbait ikasi ta irakatsiteko gertu.

Garagarrilla'ren lenengo igandean bere, orretaiko txango edo ibil-aldi polit gogor samar bat egin genduban Galdakano'ko berrogei edo berrogei ta bost bat neska-mutil gaztetxuren artean.

Orozko'ko Ibarra'tik Urigoiti auzunera berebil aundiz igon ondoren, Gorbea'ko Ipar-Sarkaldera aurkitzen dan Itxina aitzarte zoragarrira igoteko.

\* \* \*

## URIGOITI

Orretarako, lenago esan dogun Urigoiti goi-auzune alaira eldu gintzazan berebillez.

Auzune ortan ainbat basetxe dira, asko utsik, baiña orain be bizi leku diranetan, bost edo sei sendi. Ederto apainduta etxeak. Danak artzaintzatik eta abere ta lugin-tzatik bizi diranak.

Eleizatxua auzokideak eurak ondo apaindu dabe, gaur-egungo erara ipiñita. Laurentzi (Lorenzo) deuna dabe bertako zaindari, Dagonilla'ren amarrean.

\* \* \*

## ATXARTEAN

Auzune ortatik gora, burdi-bidea zear gintzazan inguru ortako bizitanleak Atso-agureak izenez ezagutzen dabezan aitz erpiñen aldamereraiño.

Bertan atx-mustur erpin orretan orain ogei ta iru urte il ziran Galdakano'tar mendigoizale gazte zintzo biren aldez otoitxu bat egiñik, Artxulu berezko atera eldu giñan.

Berezko sarraira ortatik igaroten dan Itxina atxarte ikaragarri ta ikusgarrira gero.

\* \* \*

## TOKI IKUSGARRIA

Ikusgarria ta ikusgarria esan dogu ta, alantxe da aitzarte zabal au. Bera pizkat ezagutzen ez dabenen bat bertan bakarrik aurkituko ba-litzake, gaitz izango leuke berak nai dauan lekura urtetzea.

Ikusgarria dala gu baiño gizon jakitunagoak, ikusia-goak be, esana da: Ara 1.850'gn. urtean Gorbea ta beren inguru ori, aitzarte ori ikusi ondoren zer esan eban Moritzi Willkomm Leipzig'ko Ikastetxe nagusiko irakasle zanak, birritan egon ondoren, eta beste gure ongarrizko gauza askoren artean: «La Peña (mendia) Gorbea es una de las maravillas más sorprendentes de la Naturaleza en el País Vasco, y sólo siento no ser pintor para transmitir por medio del pincel un cuadro exacto de su grandeza».

\* \* \*

## IPUIN ZARRA

Artxulo edo Atxular atetik sartu ta barrurantz ta pizka bat berantza egiñaz eldu gintzazan Supelogor arzulo aundi entzutetsura, bera pizkat ikusi eta beratazko edesti edo ipuin batzuk azaldu ondoren, bizkorrenak, geienak, Aizkorrigain'era zuzenduten ziran bitartean, besteok, makaleno: bertan, arzuluan pizkaten egonaz barriz lengo «bidetik» artxulo'tik zear bere Ipar aldeko larrenara urtetako.

Supelogor'ko arzulua ba-dau beren edesti edo ipuiñik gure Barandiaran jakintsuari gogoz irakurten ba-dautsagu «El mundo en el Mente Popular Vasca».

Berak dirauskun lez, arzulo ori Anboto'ko Mari'ren bizileku bat geiago zan, eta inguruartakoak be ortara uste eben, buzuka edo sai aundi antzeko abere aragi-zaleak zainduta.

Eta, egiz arzulo ori beti ezagutu dogu sai mordoak bertatik urtetan dabela.

\* \* \*

## ZERGAIK SAIK?

Ez dago esan bearrik, ainbat bider arzulo ortan egonak gera-ta, orretariko baten, orain ogeita lau edo bost urte, iru-lau ordu bere barruan egin genduzan arzulo ori arakatzan, beste lau edo bost gazte arzulo ta lezatan ni baiño jakitunagoak ziranakaz eta, orduantxe uste dot igarri genduala zergaitik ainbeste sai arzulo ortan ibiltan zan. Ara zelan:

Sarraieratik irurogei inguru neurkiñera leza bat dago pizkat eskoma-aldera eta, nai-ta arri batzukaz pizka bat ingurututa aurkitzen zan, ezker-aldera dagon ur garbi gardena edaten sartutzen ziran abere gazteen batzuk, noiz edo bein, leza ortara jausten ziran, pizti aragi-zaleen janari izateko, bada, leza orren sakonera amabost neurkin edo zerbait geiagokoa da.

Idatzi doguna ta beste zerbait geiago be azaldu jaken gure lagun gaztetxuei eta, poz-pozez barriz jatsi gintzazan Urigoiti auzune baketsu ta osasungarrira, bertan genduan berebil aundiz irurak baiño len erriratutzeko.

ALTUNA'tar Josu



**MENDIETAN**

*Euzkadi, ene Aberri miña,  
min dut nere biotzean,  
zure bizia dakusdalarik,  
ezpaitan, semeen artean.*

*Zure bizia, ama, sakona da  
itxaxoko ureen antzo,  
mugarik ezin billatu urari  
ezta amaren biotzik so.*

*Zure bizia berezia da.  
Jakintza avndiz sortua,  
mendietak jakituria  
seme onak onartua.*

*Aldiak aldi ditu lur zarrak  
gallurrak eta oianak,  
mendi ederrak et Zelaiak  
ibaiak ausi ditunak.*

*Ardiak ebiltzan mendietan  
asaba areen denporetan,  
auzoak eta bizi-bideak  
sortzen joian bazterretan.*

*Apala zan euskaldun artzaiña,  
udan zelai mendietan  
neguetako ekaitz artean  
ardiak txabol zarretan.*

*Mendian sortu eben izkuntza  
lur ta lagunak lakua,  
euren ingurutara begira  
izkuntz berebizikua.*

*Gure asabeen pentsabidea  
mendi lanean erne zan,  
arkaitzak eta arruabarrenak  
izketan lebilkiezan.*

*Bizi latzak itza dakar eder  
euskal arnasa ta indarra,  
enda baten arima barrià  
a zan euzko deadarra.*

*Millak urteetan euzko gizonak  
eizan eta artzaintzan,  
menditan elkartzen joan ziran  
euzko mendiko bizitzan.*

*Euzkotarrak ziran soil soilik,  
maitasun jakituriz,  
eurak sortzen zituen legeak  
batasunaren gurariz.*

*Euzko legeak izan bearrez,  
baserri lanen erara,  
etxea, laguna, dana joian  
gizon bizia zaintzera.*

*Gaurko euzkotarra, begiratu  
euzko istori zarrera,  
enda zar onen jakituria  
menditik dator etxera.*

**PAULIN****BAKEZ BIZI**

*Torroyxio txioka  
arezi luzean,  
bidagarroa dago  
pozik arratzean.*

*Egun artako lanak  
amaitu ondoan,  
luginak bakez doaz  
atzedentzen lotan.*

*Beste bidagarro bat  
pagadi aundian;  
txorrotxio txioka  
alkarraz izketan.*

*Artzaiñak mendiz bera  
illuntzi aldean,  
uju eta irrintzi  
barruan pozean.*

*Beste artzain aldra bat  
alboko mendian,  
zantzo ta aupa dabiz  
pozezko bakean.*

*Anai dira dan danak  
baso ta soloan,  
izango al dabela  
lo ona gabeen.*

*Gizonaren bizitza  
emen erbestean,  
lan ta izardiz doa  
ziur geienetan.*

*Norberekoa dala  
gizona bizitzan,  
alkar ikusi ezin  
geien geienetan.*

*Danok, txorin antzean,  
alaitu gaitezan;  
Jaunak artu gaizala  
alkarraz bakean.*

**GALLASTEGI'tar Kauldi'k**

# NESKA POLIT BAT

7.<sup>a</sup>

Durango'n jendeak ipuin asko daki, Ambo-to'ko sorgiñatzaz, Elorrio'ko erbi-txakurrei buruz... Zaldibar'ko osaiturriataz be ipuin polit bat dago.

\* \* \*

Erdi-Aroan, jende asko ilten zan gaixotasu-nakaitik, lepreagaitik batez be.

Durango'ko neska politena gaisotu zan eta soñña gaixotasun onegaitik makaldu jakon.

Jende ezjakitunak deabrua eukalakoan zingira baltz batera botatea erabagi eben (Orain an «Sanatorio Psiquiátrico» dago).

Ura beroa zanez, baserritarrek, an deabrua bizi izaten zala, eta ur areek infernuan jaiok zirala uste eben.

\* \* \*

Erriko gizonak neskea zingirara bota eben, eta ariñeketan andik urrundu ziran.

Neskatxea, ordu bi igarorik eta guztiz nekatuta, alegiñez bazterrera eldu zan, eta bere bizitza onetara gaizkatu eban. Denbora asko basoan bizi zan, orriak eta landarak jaten.

Neskeak, azala jausi jakoala, eta bere lekuan azala berria eta zurigorria azi zala, ikusi eban.

Orregaitik egun-egunero zingiran garbitu eta apurka-apurka osatu zan, len-zan baizen polit biurtuz.

Neskea bere etxera etorri zan eta jende guztia bera ikusteaz arrituta eta zurtz eginda geratzen zan.

Erriko jendeak, Jaungoikoak mirari bat egin ebalu uste eban.

\* \* \*

Ramiro (Sancho Abarka erregearen seme txikiena) eizazale amorratua zan eta orregaitik Durango'ra joan zan.

Neskearen politasuna jakin ebanean, bera ikustea eta beragaz berba egitea erabagi eban.

Laster Ramiro neskeagaz maitemindu eta ezkondu zan.

Errege-gaiak, bere emazteari zer jazo jakon jakitean, zingira-ondoan jauregi bat egiteko agindu eban, aintzira-ondoan egozan lurrak, baso eta lorategi agertu ziran.


Ezkondubarriak guztiz zoriontsu bizi izan ziran.

Jauregia ikusgarria zan, aro aretan batez be.

Euren seme-alabak, euren seme-alaben seme-alabak... eta euren senide danak an bizi ziran gizaldiz gizaldi.

Orain urte gitxira arte jauregi-etxea egoan an. Gaur ondarena bakarrik ikusten da.


BARONA'tar Astrid'ek



Gerri

- 15 IZKI'koak  
*pa. riotismo  
racionalismo*
- 11 IZKI'koak  
*er adelante*
- 9 IZKI'koak  
*lugar de jóvenes  
suceso, caso fortuito  
costa*
- 8 IZKI'koak  
*brutalidad  
lenguaje, estilo  
procedencia (de)  
momento del seceso  
establo, redil  
deseo*
- 7 IZKI'koak  
*vigorosamente*
- 6 IZKI'koak  
*semanalmente  
conocer  
molino  
mar*
- 5 IZKI'koak  
*enemigo  
vago  
acción de negar, rechazo  
echarse*
- 4 IZKI'koak  
*adiós  
turno, tiempo  
ramaje, etc.*
- 3 IZKI'koak  
*yo, agente transitivo  
aquel mismo  
nosotros*
- 2 IZKI'koak  
*lo tiene  
agua  
menudo  
a (destino, lugar)  
vocal repetida  
nosotros  
alli  
sufijo, indica privación  
tú, usted, vos*

## 6. ERANTZUNA



Gerri

# EUSKERAZALEAK

## “IGANDERO” DEIA’KO ORRIALDE BARRIA

### IRAKURLEAK BEAR

Aspaldion diardugu esan eta esan, euskeraz idatzi zerbait idazten dala, baiña irakurleak urri ditugula.

Eta zelan lortu irakurteko guraria?

Bide bat, euskera erreza ta errikoa erabiltea da. Olako euskereak irakurteko gogo sortzen dau. Ez da olakoa gaurko izpirringietan erabilten dan euskerea.

\* \* \*

### IGANDERO

Olako azterpenetan giarduala, ona emen uste-uste barik, non agertu jakun DEIA’n IGANDERO orrialdea.

Oraingoz, itzak berak diñoanez, astean bein eta igandeetan agertuko da eta askotari-ko gaiak erabiliko ditu.

Jakiña, asteroko orrialdea danez, ezin emon daikez eguneroko barriak, baiña bai olako batzui buruz, erri-eritxiak.

\* \* \*

### ZELAKOA DAN

Orain arte agertu diran errialdeak elburu ori ederto bete dabe: Bizkai’ko euskerea eta erritarrak errez-errez irakurteko lakoa da.

Ez uste izan, orregaitiño, erritxuetako berezitasunak euskera orretan agertzen diranik.

Norberaren euskerea apur bat landu ez dauanari aldatz-gora egingo jako, baiña euskeran abedetua dan edozeiñek ulertuko dau errez-errez.

Idazteko tankerea ta gaiak eurak be arin-ariñak dira eta poztasuna, irakurteko gogo sortzeko eraz idatziak.

Zoriona ba Aita Fermin eta bere laguntzailleen taldearentzat olako aukera ederra eskiñi dautseelako Bizkai’ko irakurle baztertuai.

\* \* \*

### GITXI DA

Egia esan, zerbait izan arren, gitxi da izparringian olako orrialde bat eta astean bein agertzea. Geiago, asko geiago gura dogu eta eskatzen dautsogu gure izparringiari.


Idazleak ba-dira, asko ta ugarriak, gure Bizkaija’n.

Aurrera ba, talde orrek ba-dauka almena-ta! Gaizkatu dagigun geure bizkaierrea, eta beste barik gaizkatuko dogu euskerea.

OLAZAR’tar Martin’ek

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia